

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUNAREN SAILA

Ondare Kudeaketa

“Gure Txokoa” izenez ezaguna den udal funtsean bereizi nahi den lurzati bat besterentzeko lehiaketaren deialdia eta baldintza-agiria onestea

1) Xedea. Kontratuaren xedea da “Gure Txokoa” izenez ezaguna den udal funtsean bereizi nahi den lurzati bat besterentzea.

Hauxe da ondare izaera duen higiezin horren deskribapena:

44065 zenbakiko jatorrizko funtsetik geratzen den zatia; “Gure Txokoa” izenez ezaguna den funtsa Gasteizen (Araba) dago, Frai Francisco Vitoria ibilbideko 21-C zenbakiaz seinalezaturik. 3.257,25 metro koadroko azalera dauka eta muga hauek ditu: iparraldean, Frai Francisco Vitoria ibilbidea; hegoaldean, 253 zenbakiko lursaila (Carlos García Fernández jaunarena eta beste batzuen); ekialdean, Lasarteko atean bizikleta-bidea egiteko bereizi zen funts-zatia, eta mendebaldean 248 zenbakiko lursaila (Trinidad Díaz de Guereñu Luzuriaga andrearena), 251 zenbakiko lursaila (Salovi SL ondare-sozietatearena) eta 252 zenbakiko lursaila (Nacho Lascaray Taviorena). Hiru eraikin ditu: A/ Eraikin nagusia –E1–, iparreko mugaren ondoan kokatua; 498,26 metro koadro okupatzen ditu (portxea barne) eta 1.627 metro koadro eraiki ditu (beheko solairuan, 462,69; 1. solairuan, 431,96; 2. solairuan, 402,86, eta 3. solairuan, 329,87). B/ Eraikin osagarria –E2–, ekialdeko muga kokatua; 84,00 metro koadro okupatzen ditu, eta metro koadro eraiki hauek ditu: 84,00 beheko solairuan, 84,00 metro koadro 1. solairuan, eta 36,00 metro koadro estalki azpiko solairuan. C/ eraikina –E3–, hegoaldeko muga kokatua, beheko solairuan 53,35 metro koadro okupatu eta eraikiak dituena.

Titulartasuna. Gasteizko Udalarri dagokio erabateko jabariaren % 100, Madrilgo Ana Fernández-Tresguerres García notarioaren aurrean 1340/2016 protokolo-zenbakiarekin formalizatutako eskritura publikoaren bidez erosi ostean.

Kargak. Kargarik ez.

Erregistro-inskripzioa. Gasteizko 3 zenbakiko Jabetzaren Erregistroan: 883 liburua, 4.662 liburukia, 178. orria, 1. inskripzioa.

Katastro erreferentzia: 58 poligonoa, 254 lursaila.

Besterentzeko bereizi nahi den lurzatiak 1.421,77 metro koadroko azalera du, eta funts nagusiaren hegoaldean dago; dossierrean jasotako plano topografikoan ikus daiteke konfigurazioa.

Prozedura-eraginkortasun eta -ekonomia arrazoiak direla eta, egokitzat jo da lehenengo lehiaketara deitzea eta, lehiatzaile bat hautatuz gero, esleipenaren aurretik erabakitzea lurzati bereiztea, Gobernu Batzarraren erabaki berean; ondoren, bi eragiketarako eskritura publiko berean formalizatutako lirateke.

2) Lizitazio-tipoa. Oinarrizko prezioa edo lizitazio-tipoa 991.532,94 euro da (bederatziehun eta laurogeita hamaika mila bostehun eta hogeita hamabi euro eta laurogeita hamalau zentimo), eta lehiatzaileek gora eginez hobetu ahalko dute.

Kopuru horietan ez daude zergak sartuta.

Baztertu egingo dira lizitazio-tipotik behera geratzen diren proposamen ekonomikoak.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

3) Administrazio-klausula partikularren orria. Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25), aldez aurretik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren aurrekora arte, herritarrei laguntzeko bulegoko jendaurreko ordutegian.

Udalaren web-gunean ere kontsultatu daiteke administrazio-klausula partikularren orria: <http://v-g.eus/guretxokoa>.

4) Proposamenak aurkezteko lekua, epea eta modua. Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak, 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, 30 egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.

Postaz igorri gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, eta bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz (ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org).

Lizitaziorako agiriak bi gutun-azal itxitan (A eta B) aurkeztuko dira, baldintza-orrian xedatutakoarekin bat etorriz, biak kanpoan identifikatuta eta lehiatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta.

5) Eskaintza irekitzeko ekitaldi publikoaren lekua, eguna eta ordua. Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik bost egun balioduneko epean eratuko da balioespen batzordea.

Balioespen batzordeak B gutun-azalak irekiko ditu, eta gaitasunarekin lotutako betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatuko du.

B gutun-azalak ireki ostean beharrezkoa balitz, batzordeak bost eguneko epea irekiko luke lehiatzaileek egin ditzaketen akatsak edo ahanzturak zuzentzeko; hala gertatuko balitz, atzeratu egingo litzateke A gutun-azalen irekiera, akatsak edo ahanzturak zuzentzeko epea amaitu ostean egingo litzatekeen beste ekitaldi batera.

Lehiatzaileen gaitasuna egiaztatu ondoren, lehiaketara onartutako A gutun-azalak ireki eta aztertuko dira.

A gutun-azalak ireki eta aztertu ostean, balioespen batzordeak saioaren edo saioen akta egingo du, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko eta bermea ipintzeko eskatuko dio proposatutako lehiatzaileari, eta esleipen-proposamena egingo dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 11n

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
INAKI GURTUBAI ARTETXE